BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2015/12/22

# Bizkaiko Batzar Nagusiek Kultur Txartelerako partidea 150.000 eurotan handitzea erabagi dabe

Batzarretako taldeek 2016ko Bizkaiko Aurrekontu proiektuaren aurrean aurkeztutako zuzenketa-eskeen eztabaidaren azkenengo jardunaldian, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak aurreko saioen gidoiagaz jarraitu dau, eta Euzko Abertzaleak (EAJ/PNV) eta Euskal Sozialistak (PSE-EE) taldeek aurkeztu dituen zuzenketa-eskeak baino ez ditu onartu. Euskera eta Kulturako foru saileko kontuak landu diran saioan, batzordeak Kultur Txartelaren garapenerako 150.000 euroko gastu partida barria sartzea erabagi dau. Kopuru hori Aldundiaren kreditu orokorrari egin beharreko ordainketatik kenduko da, zuzenketaren aurkezleek azaldu dabenez.

Jeltzaleen eta sozialisten ekimen horrek, eurek adierazo dabenez, Kontu horreen aurrean herritarrek egindako iradokizunak aurkezteko alegazinoetako batzuk bereganatzen ditu. Kontuek izapide barria bete dabe gaur Bizkaiko Batzarretan. Lehen aldiz, Bizkaiko Batzarrak zazpi eguneko epealdia sartu dau, bizkaitarrek euren alegazinoak aurkeztu daiezan, erakundearen webgunearen bitartez (jjggbizkaia.eus).

Lorea Bilbaok 2016an kudeatuko dituan aurrekontuei buruzko eztabaidan onartu dan beste zuzenketa-eske bat, Foru Gobernua eusten daben taldeek herritarrek egindako ekimenak eurenganatzetik etorri da. Euskera eta Kulturako aurrekontuak, Hedapena eta Museoak programaren barruan, Meatzaritzaren Euskal Museoaren Fundazinoak jasoten dauen partidearen igoerea jasoko dau. Oposizinoko taldeek gauza bera eskatu dabe aurretik. Fundazino horri 80.000 euro bideratuko jakoz, hasieran aurreikusitakoak baino 20.000 gehiago.

Euskeraren sustapenerako programan, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek batzordean bertan aurkeztu daben zuzenketa-eske trantsakzionala onartu dau PP taldeak, euskeraren sustapenari zuzendutako laguntzei bideratutako kopuru ekonomikoa handitzeko. Popularren asmoa, hasierako 425.000 euroko partidea beste 50.000 eurotan handitzea zan. Azkenean, PP-k onartu egin dau hazkunde hori 55.000 eurokoa izatea, jeltzaleek eta sozialistek eskatu daben moduan. Hazkunde horren bitartez, Aldundiak, herritarrek euskeraren ezagutzea sustatzeari jagokonez "proponidutako helburua hobeto lortzea" bilatzen da, egileek adierazo dabenez.

EH Bilduk, bere aldetik, on ikusia emon deutso Foru Aldundia eusten daben talde biek aurkeztutako zuzenketa-eske trantsakzionalari, 11.000 euroko partidea sartzeko eskola kiroleko begiraleen eta hezitzaileen artean euskerea sustatzeko.

Ogasun eta Finantzetako aurrekontuen zuzenketa-eske partzialak eztabaidatu diran eguneko bigarren saioan, zuzenketa-eskeen eta programen bozketeak ez dau ezustekorik ekarri. Oposizinoak aurkeztu dituan 17 zuzenketa-eske partzialak onartu barik geratu dira. Hogei zuzenketa-eske ingurugaz batzordera heldu dan Aurrekontuei buruzko Foru Arau Proiektuaren Testu Artikulauari jagokonez, azkenengo testuak EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek iradoki dituen hiru zuzenketa tekniko sartuko ditu.

Bukatzeko, oposizinoko hiru taldeek, seguruenez datorren abenduaren 30ean egingo dan urteko azkenengo osoko bilkurarako gorde ditue euren zuzenketa-eskeak. Ekonomia eta Ogasuneko

batzordeak emongo dauen aurrekontuei buruzko erespena PP taldearen 191 zuzenketa-eskegaz, EH Bilduren 99gaz eta Podemos Bizkaiaren 35egaz helduko da Gernikako Osoko Bilkurara. Joan dan barikutik gaur arte egin diran zortzi saioetan jeltzaleek eta sozialistek, banan-banan, atzera bota dituen 325 zuzenketa-eske dira.

NOTA DE PRENSA
22/12/2015

# Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban ampliar en 150.000 euros la partida para la Kultur Txartela

En la última jornada de debate de las enmiendas parciales presentadas por los grupos junteros al proyecto de Presupuestos de Bizkaia del año 2016, la comisión de Economía y Hacienda ha seguido el guión de sesiones anteriores con la aprobación únicamente de las enmiendas presentadas por Nacionalistas Vascos (PNV) y Socialistas Vascos (PSE-EE). En la sesión que trataba las cuentas del área foral de Euskera y Cultura, la comisión ha acordado la inclusión de una partida de gasto nueva de 150.000 euros para el desarrollo de la Kultur Txartela, que sera detraída del pago al crédito global de la Diputación, según han explicado sus proponentes.

Esta iniciativa de nacionalistas y socialistas viene a asumir, según ellos, algunas de las alegaciones que fueron presentadas por los ciudadanos en el plazo de sugerencias a estas Cuentas, que hoy han cumplido un nuevo trámite en la Cámara vizcaína. Por primera vez, el Parlamento de Bizkaia incorporaba un periodo de tiempo de siete días para que vizcaínos y vizcaínas hicieran llegar sus alegaciones a través de la web institucional (jjggbizkaia.eus).

Otra enmienda aprobada hoy en el curso del debate sobre los presupuestos que gestionará Lorea Bilbao en 2016, corresponde también a esta asunción de iniciativas ciudadanas de los grupos junteros que sustentan el Gobierno foral. El presupuesto de Euskera y Cultura incluirá, dentro del programa Divulgación y Museos, un aumento de la partida que recibe la Fundación Museo Vasco de la Minería, algo que había sido solicitado también por los grupos de la oposición. Se transferirán 80.000 euros a esta fundación, 20.000 más de los inicialmente previstos.

En el programa de promoción del Euskera, el PP ha aceptado una enmienda transaccional presentada en la misma comisión por PNV y PSE-EE para aumentar el montante económico destinado a las ayudas a la promoción del fomento del euskera. Los populares pretendían que la partida inicial de 425.000 euros aumentara en otros 50.000. Finalmente, el PP ha aceptado que este incremento se eleve hasta los 55.000 euros por petición de jeltzales y socialistas. Con este incremento, se busca que la Diputación “alcance mejor el objetivo propuesto” en torno a promover el conocimento ciudadano del euskera, dicen sus autores.

Asimismo, EH Bildu ha dado el visto bueno por su parte a una enmienda transaccional de los dos grupos que sustentan a la Diputación foral que incluye una partida económica de 11.000 euros para el fomento del euskera entre monitores y educadores del deporte escolar.

En la segunda sesión del día, en la que se debatían las enmiendas parciales de los presupuestos de Hacienda y Finanzas, la votación de enmiendas y programas no ha deparado sorpresas. Las 17 enmiendas parciales presentadas por la oposición han decaído. En lo que se refiere al texto Articulado del Proyecto de Norma Foral presupuestaria que llegaba a la comisión con una veintena de enmiendas, el dictamen final incorporará tres correcciones técnicas sugeridas por PNV y PSE-EE.

Finalmente, los tres grupos de la oposición han reservado sus enmiendas para el último pleno del año que se celebrará previsiblemente el próximo 30 de diciembre. El dictamen

presupuestario que emita la comisión de Economía y Hacienda llegará al pleno de Gernika con 191 enmiendas del PP; 99 de EH Bildu; y 35 de Podemos Bizkaia. Suman un total de 325 enmiendas que han sido desestimadas, una a una, por jeltzales y socialistas en las ocho sesiones celebradas entre el pasado viernes y hoy.